



## EGOERA

Krisi ekonomikoa eragin zuten elementuen artetik, garrantzitsuenetako bat finantza-sektorea izan zen. Eta sektore horrek ez du ezertxo ere ordaindu behar izan egindako gehiegikeria eta neurrigabekeria guztiengatik; are gehiago, garaile geratu da, gu guztion diruarekin eta etorkizunarekin finantzatutako erreskate-politika publiko sistematikoen laguntzari esker. Eta bien bitartean, herritarroi murrizketa sozialak ezarri zaizkigu defizita doitzeari lehenetasuna emanez, baina murrizketa horiek ez ditugu geuk erabaki. Azken batean, finantza-arloko espekulazioaren porrota diru publikoarekin saritu da.

Esparru orokorra gure inguruan ere aplikatu da, eta arrotz zaizkigun planteamendu eta neurriak ezarri dira, geure eredu ekonomiko eta produktiboari dagozkion eskaeren kontra. Horrela, bada, hiru aurrezki-kutzak, hau da, BBK, Kutxa eta Vital elkartu egin ziren eta sortutako erakundea banku bihurtu zen. Eraldaketa-prozesu horren balorazioa gorabehera, prozesuaren ondoko dinamika, besteak beste, Euskal Kutxen Legearen proiektuaren bitartez bideratu nahi izan zuten, erakunde horiek likidatu eta privatizatzea ziurtatzeko asmoz. Zorionez, oposizio sendoa egon zen eta, oraingoz, ekimen hori blokeatuta dago.

## HELBURUAK

Datozen urteotan, Euskal Kutxen izaera sozial eta publikoa berreskuratzea funtsezkoa da; berreskuratzekeo prozesu horretan, demokratizazio maximoa, gardentasuna eta parte-hartzea izango dira oinarri, inbertsio-politika errealak sustatuta espekulazio-jardueren ordez, eta erakundearen kontrol demokratikoa bermatuta.

Gure sare sozioekonomikoaren premiei erantzuteko garaian, oro har, Euskal Herrian pentsatu eta diseinatutako politika publikoekin erantzutea behar-beharrezkoa da, aurrezkiak gure herriaren produkzioan inbertitzera eta premia sozialetara bideratu ahal izateko, irizpide etikoei jarraikiz eta pertsonak ez ezik, gure lurraldeetan errotuta dauden enpresa txiki eta ertainak ere izanik ardatz.

## NEURRIAK

- 1 Aurrezki Kutxen Legearen proiektu berria aurkeztuko dugu, parte hartzeko prozesu ireki baten ondorio; erakundearen kontrol publiko eta soziala bermatzea izango du xede gure proposamenak, eta erakundea aurreztaileen, ETEen eta, oro har, Euskal Herriko sare sozial eta ekonomikoaren zerbitzura egongo da, ez beste inoren zerbitzura.
- 2 Erakundeei Kutxabanken kontrol publiko eta soziala berreskuratzeko aukera emango dieten bide guztiak arakatuko ditugu, potentzial handiko finantza-tresna baita Kutxabank gure herriaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko.
- 3 Kode etikoa eta jardun-protokoloa prestatuko ditugu Eusko Jaurlaritzak finantza-erakundeekin jardun behar duenerako, eta lankidetzaz horretan bete beharreko irizpideak, jardunbideak eta baldintzak zehaztuko ditugu. Era berean, banka etikoaren esperientziak eta egiturak sustatuko ditugu gure lurraldean.
- 4 Euskal finantza-sistema publikoa arakatu, aztertu eta ondoren sortzeari bultzada emango diogu; sistema publiko hori ekonomia errearen eta produkzio-ekonomiaren zerbitzura egongo da, egungo Finantzen Euskal Institutua izango du abiapuntu, eta Europatik jaso daitezkeen ekarpenak ere kontuan izango ditugu.
- 5 Finantzen Euskal Institutua berraktibatu eta indartu egingo dugu eta, Kreditu Ofizialeko Institutuaren antzeko bihurtzearen, eskumen gehiago emango dizkiogu: Banku Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren Finantza Agentzia izango da.
- 6 Kontrol eta kudeaketa publikoa izango duen BGAE bat eratzeko aukera bultzatuko dugu.
- 7 Finantza-erakundeekin batera, kredituaren fluxua berraktibatu eta indartuko dugu; horretarako, arriskuak estaltzeko politikak eta banku eta kutxekin aliantzak egiteko politikak bultzatuko ditugu.

### AIPATUTAKO NEURRIAK ABIARAZTEA.

Euskal Aurrezki Kutxen Legearen proiektuan, parte-hartzea bultzatzeko beharrezkoak diren tresnak indartuko ditu gobernua, erakunde, elkarte eta agente guztiek ekarpenak egin ditzaten lege-proiektua osatzeko prozesuan.

Kode etikoa eta jardun-protokoloa dagokion sailak egingo du, eta administrazioak finantza-erakundeekin zer nolako harremanak izan behar dituen eta nola jardun behar duen zehaztuko du, betiere administrazioaren jardueran portaera etikoak txertatzeko eta praxi desegokien ondorioz egoera bidegaberik eta babesgabeziarik sor ez dadin.

Euskal finantza-sistema publikoa sortzeko prozesuak hiru fase izango ditu: arakatzea –erakunde independente bati eskatuko diogu sor daitezkeen egoera guztiak aintzat hartzeko–, aztertzea –parte hartzeko eta akordio politikoa lortzeko prozesua abiarazita–, eta adostasuna –euskal finantza-sistema gauzatzeko eta jasangarri izateko etorkizunean–.

Arriskuak estaltzeko politikei eta banku eta kutxekin aliantzak egiteko politikei dagokienez, etorkizunean inbertitzeko proiektuak dituzten enpresei laguntzea izango dute xede, epe luzera lanpostuak sortzeko gaitasuna dutenei, betiere lan-baldintza duinekin.